

Kudeaketari buruzko txostena
Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIJETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Crowdfunding Bizkaia PFP, NEM
Crowdfunding Bizkaia P.F.P., S.L.U.

Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., N.E.M., 2017ko azaroaren 23an iraupen mugagabez sortu eta osorik Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza daukan sozietatearen egoitza soziala Bilboko Kale Nagusia 25ean (Bizkaia) dago eta bere egoitza administratiboa, Bilboko Jesusen Bihotzaren plazan (Bizkaia). Crowdfunding Bizkaia helburu soziala du: webgune baten bidez, diru-etekinaren truke finantzazioa eskaintzen duten mota askotako pertsona fisiko edo juridikoak, inbertsiogileak deritzotenak, euren izenean finantzazioa eskatzen duten pertsona juridikoekin, pertsona sustatzaileak deritzotenekin, harremanetan jartzea.

Beraz, Partaidetzan oinarritutako Finantzaketa Plataforma da eta helburu bikoitza du:

- Pertsona sustatzaileei proiektuak finantzatzeko alternatiba eskaintzen die banakako inbertsioak batuz.
- Inbertsiogileentzat interesgarriak diren erakundeetako kapital sozialean sartzeko aukera da.

Horrenbestez, Sozietatearen zeregina enpresa jardura berriak garatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak ematea da: aholkularitza, laguntza teknologikoa eta prestakuntza.

Jardueren bilakaera

I. Partaidetzan oinarritutako Finantzaketa proiektu motak

Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., N.E.M. Sozietatearen helburu nagusietakoa, online plataforma bat (www.crowdfundingbizkaia.com) pertsona sustatzaileen eta inbertsiogileen eskura jartzea da, lehenengoek euren proiektuak erakutsi ahal ditzaten eta bigarrenak proiektu horietan inbertitu ahal dezaten.

Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., S.L.U., Sociedad constituida indefinidamente el 23 de noviembre de 2017 e íntegramente participada por la Diputación Foral de Bizkaia, tiene su domicilio social en Gran Vía, 25 de Bilbao (Bizkaia) y su sede administrativa se encuentra en Sagrado Corazón de Jesús, 7 de Bilbao (Bizkaia). Crowdfunding Bizkaia tiene por objeto social el poner en contacto, de manera profesional y a través de una página web, a una pluralidad de personas físicas o jurídicas que ofrecen financiación a cambio de un rendimiento dinerario, denominadas personas inversoras, con personas jurídicas que solicitan financiación en nombre propio para destinarlo a un proyecto de financiación participativa, denominadas personas promotoras.

Así, es una Plataforma de Financiación Participativa con una doble finalidad:

- Para las personas promotoras ofrece una alternativa para financiar sus proyectos mediante la suma de inversiones individuales.
- Para las inversoras es una oportunidad de entrar en el capital social de organizaciones de su interés.

Con lo que el papel de la Sociedad se corresponde con la prestación de los servicios necesarios para la consecución de financiación para el desarrollo de nuevas actividades empresariales: asesoramiento, asistencia tecnológica y formación.

Evolución de las actividades

I. Tipos de proyectos de financiación participativa

Una de los principales objetivos de la Sociedad Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., S.L.U., es poner a disposición de los proyectos empresariales de las personas promotoras y de las personas inversoras, una plataforma online (www.crowdfundingbizkaia.com) en que las primeras puedan exponer los proyectos y las segundas invertir en los mismos.



Crowdfunding Bizkaia PFP, NEM
Crowdfunding Bizkaia P.F.P., S.L.U.

Plataforma horretan crowdfunding motako eragiketak sartzen dira. Horien artean hauek daude: obligazioak, akzio arruntak eta pribilejiozkoak, nahiz kapitala ordezkatzeko beste balore edo partaidetza batzuk eskuratzea, dagokion Sozietate motaren arabera.

Kasu bietan, inbertsiogile fisikoa edo juridikoa akreditatua edo akreditatu gabea izan daiteke, eta horrek inbertsio-muga ezartzen du, eragiketa bakoitzerako eta era globalean.

Bestalde, proiektuaren sustatzaileak, derrigorrez, pertsona juridikoa izan behar du.

II. Zerbitzuen azalpena eta irismena

II.1. Zerbitzu nagusiak

- a) Partaidetzan oinarritutako finantzaketa proiektuak jasotzea, aukeratzea eta argitaratzea.

Sustatzaileen alta prozesua eta dagozkien proiektuak bete ondoren, horiek hautatu eta baliozkotzen dira, behin betiko argitaratzeko.

Crowfundig Bizkaia, P.F.P., N.E.M.-k, aurreikusitako baldintzetan jasotzen diren eskakizunak betetzearen arabera proiektuen azterketa egiten du:

- Bazkideen parte-hartzea eta inplikazio ekonomikoa.
- Talde kudeatzailearen kalitatea eta gaitasun teknikoa.
- Bizkaian lanpostuak eta aberastasuna sortzeko ahalmena.
- Enpresaren berrikuntza maila eskainitako prozesuei edota produktuei/zerbitzuei dagokienez.

Así, el tipo de operación de crowdfunding que se incluye en esta plataforma es el de inversión, entre las que están incluidas la adquisición de obligaciones, acciones ordinarias y privilegiadas u otros valores o participaciones representativas del capital, según el tipo de Sociedad de que se trate.

En ambos casos, la persona inversora, física o jurídica, en el proyecto puede ser acreditada o no acreditada, lo que determina su límite de inversión por operación y de forma global.

Por otra parte, la persona promotora del proyecto ha de ser, de forma obligatoria, una persona jurídica.

II. Descripción y alcance de los servicios

II.1. Servicios principales

- a) Recepción, selección y publicación de proyectos de financiación participativa.

Una vez se ha cumplido el proceso de alta de las personas promotoras con sus respectivos proyectos, se procede a la selección y validación de los mismos, a fin de proceder a su publicación definitiva.

Crowfundig Bizkaia, P.F.P., S.L.U., realiza un análisis de los proyectos en función del cumplimiento de los requisitos recogidos en las condiciones previstas:

- Participación e implicación económica de los/as socios/as.
- Calidad y capacidad técnica del equipo gestor.
- Potencial para la generación de empleo y riqueza en Bizkaia.
- Grado de innovación empresarial, con respecto a sus procesos y/o productos/servicios ofertados.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Crowdfunding Bizkaia PFP, NEM Crowdfunding Bizkaia P.F.P., S.L.U.

- Enpresaren eskalagarritasuna edo handitzeko ahalmena.
- Enpresaren abantaila lehiakorrak eta negozio planaren bideragarritasuna.

Proiektu bakoitzean behar den informazio guztia aurkeztu ondoren, haietako bakoitza konprometitutako epeetan argitaratzeari buruz erabakiko da, ezarritako finantzaketa aldiaren eta helburuaren arabera plataforman jarraituz.

- b) Inbertsiogileen eta sustatzaileen artean komunikatzeko kanalak garatzea, ezartzea eta ustiatzea.

Ondorio horietarako, Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., N.E.M.-k erabiltzaileen esku jartzen du plataforma, sustatzaileen proiektuak bertan jartzeko, inbertsiogileek eurentzat interesgarriak diren ala ez erabakitzeo aukera izan dezaten.

Horretarako, proiektuen atal publiko bat dago eta bertan jakin-nahia pizteko behar den informazioa jartzen da, eta atal pribatu bat ere badago eta bertara sartzeko erregistratutako erabiltzailea izan behar da; hor proiektuei buruzko datu gehiago eskaintzen da.

Proiektu bakoitzean lekua dago ekintzailearen eta proiektuaz interesatuta daudenen artean komunikazioa ezarri ahal izateko. Hala eta guztiz ere, blog hori Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., N.E.M.-k moderatzen du.

II.2. Zerbitzu osagarriak

- a) Sustatzaileentzako aholkularitza

Proiektuak aztertzeo eta argitaratzeko prozesuan badaude zenbait mugarri pertsona sustatzaileei aholkularitza emateko. Horrela, balioztatu baino lehen proiektuen egituraketa eta finantzatu beharreko zenbatekoa aztertzen dira. Proiektua aztertu eta balioztatu ondoren, elkarrekin lan

- Escalabilidad o potencial de crecimiento de la empresa.
- Ventajas competitivas de la empresa y viabilidad del plan de negocio.

Una vez presentada toda la información requerida en cada proyecto, se resolverá sobre la publicación de cada uno de ellos en los plazos comprometidos, permaneciendo en la plataforma según el período y objetivo de financiación establecidos.

- b) Desarrollo, establecimiento y explotación de canales de comunicación entre inversores/as y promotores/as.

A estos efectos, Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., S.L.U., pone a disposición de las personas usuarias la plataforma como lugar de ubicación de los proyectos de las personas promotoras, a fin de que las inversoras puedan juzgar su interés por los mismos.

Se dispone, en este sentido, de una parte pública de los proyectos, que contiene la información suficiente para suscitar el interés y de una parte privada, para cuyo acceso es necesario ser usuario/a registrado/a, en la que se dispone de una mayor cantidad de datos al respecto.

En cada proyecto existe un espacio donde se puede establecer una comunicación entre el/la emprendedor/a y los/las interesados/as en el proyecto. Este blog, no obstante, cuenta con Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., S.L.U., como moderadora del mismo.

II.2. Servicios auxiliares

- b) Asesoramiento a promotores/as

A lo largo del proceso de análisis y publicación de los proyectos, existen diferentes hitos en los que se realiza un asesoramiento a las personas promotoras. Así, de forma previa a la validación se contrastan la estructuración de los proyectos y el importe a financiar. Una vez que el proyecto está



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Crowdfunding Bizkaia PFP, NEM Crowdfunding Bizkaia P.F.P., S.L.U.

egiten da proiektuaren edukiri eta haren argitalpenari dagozkien gaietan.

Proiektua plataforman ikusteko eta argitaratzeko prest dagoenean, Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., N.E.M. sustatzen duten pertsonekin harremanetan egongo da proposatutako finantzaketa-helburua lortzen den edo lortzen ez den arte.

b) Inbertsio-proiektuak aztertzea eta arrisku maila zein beste aldagai batzuk ezartzea.

Zerbitzuok argitaratu beharreko proiektuen aztertze eta balioztatze-zereginen barruan daude, haien ahalmena, eskalagarritasuna eta bideragarritasuna erabakitze beharrezkoak diren aldagaietan oinarrituta.

Soilik horren bidez erabaki ahal izango da proiektuen egokitasuna finantzatu beharreko zenbatekoari dagokionez.

c) Proiektuetan parte hartzeko kontratu-ereduak eskura jartzea

Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., N.E.M.-k inbertsiogileen esku jartzen ditu proiektuetan parte hartzeko eredu orokorrak, haientzat interesgarriak izan daitezkeelakoan.

Dokumentuon edukia eta prozeduraren xehetasunak pertsona inbertsiogileen eskura daude inbertsioa egin baino lehen, jakinaren gainean egon daitezen.

d) Diru-funtsak transferitzeko sistema

PFPak erregistratzeko eskatzen diren baldintzak betez, eta ordainketa-zerbitzuei buruzko azaroaren 13ko 16/2009 Legearekin bat etorriz, Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., N.E.M.-k Ordainketa-erakunde bat aukeratu du plataforman argitaratutako proiektuen ondorioz inbertsiogileen

analizado y validado, se trabaja conjuntamente para aspectos relacionados con el contenido del proyecto y la publicación del mismo.

Una vez que el proyecto está configurado para para ser visualizado y publicado en la plataforma, Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., S.L.U., está en contacto con sus personas promotoras hasta la obtención o no del objetivo de financiación propuesto.

b) Análisis y determinación del nivel de riesgo y otras variables de los proyectos para la inversión.

Estos servicios están comprendidos en la labor de análisis y validación de los proyectos a publicar, basado en las variables necesarias para determinar el potencial, escalabilidad y viabilidad de los mismos.

Sólo a través de ello es posible determinar la idoneidad de los proyectos con respecto al importe a financiar.

c) Puesta a disposición de modelos de contratos de participación en los proyectos

Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., S.L.U., pone a disposición de los/as inversores/as los modelos genéricos de participación en proyectos, por si fuera de su interés.

El contenido de estos documentos, así como los detalles del procedimiento se encuentran a disposición de las personas inversoras con anterioridad a realizar la inversión, para su conocimiento, y puesta en común.

d) Sistema de transferencia de fondos

En cumplimiento de los requisitos exigidos para el Registro de las PFP y de acuerdo a la Ley 16/2009, de 13 de noviembre, de servicios de pago, Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., S.L.U., ha seleccionado una Entidad de pago para instrumentalizar los movimientos de efectivo



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Crowdfunding Bizkaia PFP, NEM Crowdfunding Bizkaia P.F.P., S.L.U.

finantzaketatik datozen diru mugimenduak bideratzeko.

derivados de la financiación de personas inversoras logrado por los proyectos publicados en la plataforma.

Erakunde horrek plataformako erabiltzaileen arteko funts-igorpen guztien ardura du eta ondo egiten direla bermatzen du, Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., N.E.M.-ren plataforman bertan txertatuta dagoen aplikazioaren bidez.

Dicha entidad, es quien se responsabiliza y garantiza todas las transmisiones de fondos entre las personas usuarias de la plataforma, a través de un aplicación que está integrada en la propia plataforma de Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., S.L.U.

III. 2022ko ekitaldiko adierazleen emaitzak

III. Resultados de indicadores ejercicio 2022

Sozietatearen jardueraren adierazle nagusiak, erregistratutako erabiltzaileei, argitaratutako proiektuei eta lortutako finantzaketa-helburuei dagozkienak dira.

Los principales indicadores en la actividad de la Sociedad son los referidos a usuarios/as registrados/as, proyectos publicados y objetivos de financiación logrados.

2022ko ekitaldian, plataforma honetan eskuragarri dauden datuak hauek dira:

Los datos disponibles de esta plataforma, durante el ejercicio 2022, son los siguientes:

	P. Fisikoa / P. Física	P. Juridikoa / P. Jurídica	Gizonak / Hombres	Emakumeak / Mujeres	Guztira / Total
Akreditatu gabeko inbertsiogileak / Inversores no acreditados	386	37	295	91	423
Akreditatutako inbertsiogileak / Inversores acreditados	28	6	18	10	34
Sustatzaileak / Promotores	181	69	-	-	250
Guztira / Total	595	112	313	101	707

Sozietateko taldeak 35 proiektuekin harremanetan jarri edo aztertu ditu ekitaldi honetan. Horietatik, hauek dira baldintzen azterketa gainditu dutenak eta plataforman finantzaketa bilatzeko jarri direnak:

El número de proyectos contactados o analizados por el equipo de la Sociedad en este ejercicio han sido 12, de los cuales han superado los requisitos del análisis y han sido expuestos en la plataforma en busca de financiación los siguientes:



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Crowdfunding Bizkaia PFP, NEM Crowdfunding Bizkaia P.F.P., S.L.U.

Proiektua / Proyecto	Finantziatio helburua / Financiación objetivo	Ondo itxitako proiektuen bidez lortutako finantziatioa / Financiación obtenida por proyectos cerrados con éxito	Lortutako finantziaketa / Financiación recaudada	Sektorea / Sector
BASQ SNEAKERS, S.L.	148.700,00	186.150,00	186.150,00	Fashion / Sostenibilidad
SAMA BOX, S.L.	75.000,00	67.698,74	67.698,74	Beauty /Health
YUIIT THE FAIR FOOD COMPANY, S.L.	50.000,00	62.500,00	62.500,00	Foodtech
Guztira / Total	273.700,00	316.348,74	316.348,74	

2022. ekitaldian ez da finantziatio-errondan finantziatio helburua lortu ez duten proiekturik argitaratu plataforman.

Gainera, ekitaldi honetan, sozietateak CNMV-ren Lending lizentzia lortzeko prozesua gaingitu du.

Beste alde batetik, Crowdfunding Bizkaia Europa mailan lankidetzan jarraitzen du, ECNko "European Crowdfunding Network" kide gisa. Halaber, Sozietateak CNMV erakundearen eskakizunak betetzen jarraitzen du.

Sozietateari aurreikusten zaion garapena

Administratzaileek, 2022ko ekitaldian Sozietateak handitzen jarraitu ahal izango duela aurreikusten dute, bai aztertutako proiektu kopuruari dagokionez, bai plataforman erregistratutako eta hautatutako proiektuetan inbertitzeko prest dauden inbertitzaile kopuruari dagokionez ere, eta, horrela, Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresa-sarea indartzen jarraitu ahal izango duela. Era berean, Lurraldeari mesede egiten eta bultzatzen jarrai dezaketen produktu berriak aztertzen jarraituko du.

Langileak

Ekitaldia amaitzean, Sozietateak pertsona bat du lantaldean lanean.

Durante el ejercicio 2022 no ha habido ningún proyecto publicado en la plataforma que no haya logrado la financiación objetivo en la ronda de financiación.

Además, este ejercicio, la Sociedad se ha sometido y ha superado el proceso para la obtención de la licencia de Lending de la CNMV.

Por otra parte, Crowdfunding Bizkaia sigue colaborando en el ámbito europeo como miembro de la ECN "European Crowdfunding Network". A su vez, la Sociedad sigue cumpliendo las exigencias de la CNMV.

Evolución previsible de la Sociedad

Los Administradores esperan que durante el ejercicio 2022 la Sociedad pueda seguir creciendo tanto en número de proyectos analizados como en inversores registrados en la plataforma y dispuestos a invertir en los proyectos seleccionados, pudiendo así seguir reforzando el tejido empresarial del Territorio Histórico de Bizkaia. A su vez, seguirá explorando nuevos productos que puedan seguir impulsando y beneficiando al Territorio.

Personal

La Sociedad tiene una persona en plantilla a cierre del ejercicio.



Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Crowdfunding Bizkaia PFP, NEM Crowdfunding Bizkaia P.F.P., S.L.U.

Ingurumena

Sozietateak ez du gauzatzen kutsakorra den jarduerarik bere ekonomia arloko jardueretan.

Partaidetza propioak

Ekitaldian zehar, Sozietateak ez du eragiketarik egin bere akzio propioekin.

Itxi ondorengo gertaerak

Ekitaldia itxi eta gero, ez da sortu urteko kontuetan eragin azpimarragarria duen inolako gertaerarik.

Ikerketa eta Garapen jarduerak

Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., N.E.M. sozietateak ez du ikerketa eta garapen proiekturik egin eta ez die halakorik egiteko agindu hirugarrenei.

Finantza arriskuak kudeatzeko politika

Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., N.E.M. sozietateak ez du finantza arriskuak jasateko arriskurik.

Ez du eragiketarik egiten nazioartean; beraz, ez du dibisa eragiketen kanbio tasak ekar ditzakeen arriskuak jasateko aukerarik.

Finantza-tresnak

Erakundeak ez du deribaturik kontratatzen, ezta bestelako finantza-tresnarik ere.

Medio ambiente

La Sociedad no realiza una actividad contaminante en su proceder económico.

Participaciones propias

La Sociedad no ha realizado operaciones con acciones propias durante el ejercicio.

Hechos posteriores al cierre

No se ha producido con posterioridad al cierre del ejercicio hecho alguno que afecte significativamente a las cuentas anuales.

Actividades en materia de Investigación y Desarrollo

Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., S.L.U. no ha realizado ni encargado a terceros proyectos de investigación y desarrollo.

Política de gestión de riesgos financieros

Crowdfunding Bizkaia, P.F.P., S.L.U. no está expuesta a riesgos financieros.

No opera en ámbito internacional, por lo que no está expuesta al riesgo de tipo de cambio por operaciones con divisa.

Instrumentos Financieros

La Sociedad no realiza contrataciones de derivados, ni de ningún tipo de instrumento financiero.